

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Promociones VIGUR SArI errekerimendua jakinaraztea

Promociones VIGUR SArI jakinarazteko ahaleginak egin dira espresuki; baina, hainbat arrazoi dela medio, ezin izan zaio jakinarazi; horregatik, iragarki hau argitaratzen da ALHAOn, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan eta harekin bat etorri eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan ezarritakoa betetzeko.

Alkatearen 210/2019 Dekretua

Udaleko arkitekto teknikoak 2019ko ekainaren 17an egindako txostena ikusi da. Honako hau dio txostenak:

Bitorianoko 2 poligonoan dagoen eta Promociones VIGUR SArI den 1.222 lurzattia ikuskatzeko bisitan, egiaztatu ahal izan da ez direla egin lurzatiaren azalera osoan aldizka egin beharreko mantentze lanak.

Txostenak argazki bat dakar, eta ondorioztatzen du udalak Promociones VIGUR SArI eskatu behar diola berehala moztu dezala lurzatian dagoen belarra. Horrez gain, jabeari gogorarazi behar dio bere betebeharra dela lurzatian aldizka mantentze lanak egitea, eta udalak ez duela zertan egin horretarako errekerimendurik aldezturik.

Kontuan izanik Lurzoruaren eta Hiri Errehabilitazioaren Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuko 15.1.b) artikuluan ezarritakoa, "lurren, instalazioen, eraikuntzen eta eraikinen jabetza-eskubideak, haien egoera edozein izanik ere, oro har honako eginbehar hauek hartzen ditu barne: segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabileraren horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea"; era berean, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 199.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, "lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigarritasuna eta benetako erabileraren bermatzeko". Ildo beretik, Zuian indarrean dauden arau subsidiarioen 48. artikulua betebeharrak haur ezartzen du: "Jabeek eraikinen, urbanizazioen, lursailen, kartelen eta instalazioen segurtasuna, osasungarritasuna eta apaintasun publikoa zaindu behar dute".

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 203. artikulua dioena aintzat hartuz, udalek exekuzio aginduak eman beharko dituzte egiaztatzen dutenean lurralde edo hirigintza antolamenduko arauetan aurreikusi edo sartu gabe dauden egintzak edo erabilerak gertatzen direla, arau horiek exekutiboak izaki. Ez betetzeak bide emango dio administrazioari betebeharra zuenaren orde eta haren kontura berak egiteko, edo hertsatze isunak jartzeko, hamar arte, horien artean gutxienez hilabeteko tartea utzita eta isun bakoitzak agindutako lanen begiz jotako kostuaren ehuneko 10 gainditu gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2019 Legeak 99., 100. eta 102. artikuluetan eta Konstituzioak 18.2 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, Administrazioak exekuzio subsidiarioaren bitartez betebeharrak ditzake administrazio egintzak, nahitaez norberak egin beharrekoak ez izaki, egin behar dituenaz gain beste norbaitek ere egin

ditzakeenean; horrek haren etxean sartu beharra dakarrenean, haren baimena edo, bestela, dagokion epaile baimena eskuratu beharko da.

Horiek horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.q) eta s) artikuluek aitortutako eskumenez baliatuz,

Ebazten dut

Lehenengoa. Agintzea Promociones VIGUR SAri, Bitorianoko 2 poligonoko 1.222 lurzatiaren katastroko titularra den aldetik, berehala moztu dezala lurzati horretako belarra, gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazpen hau jasotzen denetik, eta gogoraraztea bere betebeharra dela lurzatian aldizka mantentze lanak egitea, eta udalak ez duela zertan egin horretarako errekerimendurik aldezturik.

Bigarrena. Interesdunari ohartaraztea agindu hau ez betetzeak bide eman diezaiokeela administrazioari haren kontura berak egiteko, edo hertsatze isunak jartzeko, hamar arte, horien artean gutxienez hilabeteko tartea utzita eta isun bakoitzak agindutako lanen begiz jotako kostuaren ehuneko 10 gainditu gabe, haren kontura exekuzio subsidiarioari ekin baino lehen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 203. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, dagozkion errekurtsioak adieraziz.

Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da txandaz dagokion Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango duzu, nahi izanez gero, jakinarazten den esanbidezko ebazpen hau hartu zuen organoaren aurrean. Horretarako hilabete izango duzu, hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan adierazten dizut.

Murgia, 2019ko abuztuaren 5a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA